

Informazio orri honen bidez zuen interesekoak izan daitezkeen hainbat berri eman nahi dizkizuegu. Gogoratu nahi dizuegu, halaber, gai hauei edo beste edozeini buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Federazioarekin harremanetan jar zaitezketela, horretarako eskaintzen ditugun bide hauetako edozein erabilia: aurrez aurreko arreta, Federazioaren bulegoan, 9:30etik 17:30era, astelehenetik ostiralera; telefono bidezko arreta (tel. zk.: 943 32 72 08 / fax zk.: 943 27 49 77); edo posta elektronikoa, [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org) helbidera idatzita.

## **1.- ZUZENDARIAK AUKERATZEKO PROZESUA**

Otsailaren 18an argitara eman zuten Aldizkari Ofizialean 22/2009 Dekretua, ikastetxeetako zuzendariak eta pertsona bakarreko beste kargu batzuk izendatzeko prozedura berria arautzen duena. Aurreko prozedurari buruzko aldaketa gehienak estatu osoan Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE) ezarri izanaren ondoriozkoak dira, eta horrek Euskal Eskola Publikoaren hainbat alderdi aldatzea ekarri du, era berean.

Aukeratze-prozesua merezimenduen lehiaketaren bidez egingo da karrerako funtzionarioak diren irakasleen artean eta berdintasun, publizitate, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak erabiliko dira. Bi fase izango ditu: ikastetxeko zuzendariak izateko hautagaitzak aurkeztu dituzten pertsonak alegatutako merezimenduak baloratuko dira lehenengoan eta, ikastetxearen hezkuntza-proiektuari begira, hautagaiaren zuzendaritza-proposamenak agertuko duen zuzendaritza-proiektua baloratuko da bigarrenean. Aukeraketa batzordea eratuko da ikastetxe bakoitzean eta honako kide hauek osatuko dute: ikastetxeari dagokion hezkuntza-ikuskatzaile batek (batzordeko lehendakari jardungo du), ikastetxeko klaustroko kideek euren artean aukeratutako ikastetxeko irakasleen bi ordezkari, ikastetxeko irakasle ez diren ikastetxe bertako Ordezkaritza Organiko Gorenko (Eskola Kontseilua) kideek euren artean aukeratutako bi lagunek. Gutxienez horietako batek ikasleen gurasoen sektoreko ordezkaria izan behar du.

Aukera egin ondoren, Ordezkaritzak zuzendari izendatuko du aukeratutako pertsona, eta uztailaren 1ean egingo da pertsona hori karguaren jabe, lau urteko eperako. Aukeratutako pertsonak zuzendaritza eginkizunetan gutxienez bi urteko esperientzia duela egiaztatzen ez badu, Hasierako Formazio Programa bat egin beharko du, kargua hartu aurretik. Hautagairik aurkezten ez bada edo dagokion batzordeak inor aukeratu ez badu, Ordezkaritzak (Ikuskaritzak alde aurretik egindako txostenari jarraituz) karrerako funtzionarioa den irakasle bat izendatuko du zuzendari, urtebeteko ezohiko eperako; zuzendari hori 2009ko uztailaren 1etik 2010eko ekainaren 30era egongo da karguan. Urtea betetakoan, merezimenduen lehiaketarako deialdia egingo da ikastetxean, hutsik gelditutako kargua betetzeko. Kargua berriro ere hutsik geldituz gero, Ordezkaritzak karrerako funtzionarioa den irakasle bat izendatuko du zuzendari, hiru urterako, oraingoan. Zuzendari berriaren ardura izango da ikastetxeko kargu bakarreko gainerako zuzendaritza organoak izendatzeko proposamena egitea; kargudun guztiek destinoa ikastetxe horretan daukaten irakasleak izan behar dute.

Oraindik ez dute argitara eman zuzendari berriak aukeratzeko merezimenduen lehiaketarako deialdia arautuko duen Agindua, baina honako data hauek aurreikusten dira, prozesu osoari dagokionez:

- Otsailaren 23tik martxoaren 6ra, zuzendari kargurako hautagaiek eskaria aurkeztu beharko dute, beren Zuzendaritza Proiektua atxikita.
- Martxoaren 28an Hezkuntza Ordezkaritzak argitara emango du onartutako hautagaien zerrenda.
- Martxoaren 30etik apirilaren 2ra, ikastetxeko Irakasleen Klaustroak eta OOG-Eskola Kontseiluak bilera egin beharko dute, aukeraketa batzordera bidaltzeko ordezkariak hautatzeko. Apirilaren 21erako, ofizialki eratuta egon beharko du batzorde horrek, eta apirilaren 24a baino lehen egin beharko du hautagai bakoitzaren merezimenduen balioespena.
- Maiatzaren 11tik 26ra, ikastetxe bakoitzeko aukeraketa batzordeak hautagai bakoitzaren Zuzendaritza Proiektuaren balioespena egingo du.
- Maiatzaren 27tik 29ra, aukeraketa batzorde bakoitzak hautagaiek bi faseetan lortutako puntuak batuko ditu, eta puntu gehien bildu dituen hautagaia aukeratuko du.

Federazioaren webgunean ([www.baikara.org](http://www.baikara.org)) eskura dezakezue aukeraketa prozesu hori arautzen duten dekretuaren eta aginduaren eduki osoa.

## 2.- ESKOLA MAPA

Otsailaren 12an argitara eman zuten Aldizkari Ofizialean 21/2009 Dekretua, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen sarearen antolamendurako eta plangintzarako irizpideak finkatzen dituena. Hau da, eskola mapa berriaren proposamena lantzeko aintzat hartuko diren irizpideak finkatzen dituena.

Irizpide horien alderdi nagusien artetik honako hauek iruditzen zaizkigu bereziki nabarmentzekoak:

- Ikastetxeen antolamendurako eta plangintzarako irizpideak ikastetxe publiko nahiz pribatuetan ezarri beharko dira.
- Eskola mapa berria behin betiko onartu aurretik, aldaketa prozesuek eragin diezaieketen ikastetxeak entzuteko izapideak egiteko dagokion prozedura abiatuko du Hezkuntza Sailak.
- Eskola-bilgunea izango da lurralde banaketaren oinarrizko unitatea, hezkuntza zerbitzuen plangintza eta antolaketari begira. Eskola-bilgunea, bere aldetik, eskola-zonaldean bana daiteke, inguruabarrek horrela eskatzen badute. Eskola-bilguneen eta, hala bada, eskola zonaldean edo udalerrien barruan ezarri beharko dira ikastetxe bakoitzaren eragin-eremuak, ikasleek sarbidea izateko aukera berdinak izan ditzaten eta etxetik gertu izatearen aldeko irizpidea aplikatu dadin.
- Eskola-bilgune, eskola-zonalde edota udalerriri batean ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak badaude, batzuentzat zein besteentzat eragin eremu berdinak ezarriko dira.
- Eskolatzeko batzordeen bitartez, Hezkuntza Sailak ahaleginak egingo ditu eta neurri egokiak hartuko ditu, fondo publikoek sostengatzen dituzten ikastetxeak erantzulekide izan daitezkeen ikasturtea hasi ondoren hezkuntza-sistemara sartu behar duten ikasleak eskolatzeko lanean.
- Ikastetxeak atxikitzea: atxikipena da bi ikastetxearen artean ezartzen den batasuna, baldin eta, hezkuntza etapa desberdinak eman arren, ikastetxe bakartzat hartzen badira, ikasleak onartzeko orduan.
- **Ikastetxe publikoen motak:**
  - a) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, 2 eta 12 urte bitarteko ikasleak eskolatzen dituztenak eta Haur Eskola publikoak beraiei atxikita dituztenak.
  - b) Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, 12 eta 18 urte bitarteko ikasleak eskolatzen dituztenak.
  - c) Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuak.

Ahal denean, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak sortzea sustatuko da, bertan 2 eta 16 urte bitarteko ikasleak edo, behar bada, 18 urte arteko ikasleak eskolatzeko. Ikastetxe horiek izango dute proiektu bat, hezkuntza-etapa desberdinak barne hartuko dituena, eta atxikita eduki ahal izango dituzte Haur Eskola publikoak.

Aurreko atalean ezarrita dagoenetik aparte, inguruabarrengatik gomendagarria bada, beste moduko ikastetxeak egon daitezke: Haur Eskolak, Haur Hezkuntzako lehen ziklo osoa edo horren zati bat eskaintzen dutenak / Haur Eskolak, Haur Hezkuntzako bi zikloak eskaintzen dituztenak / Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak, Haur Hezkuntzako bi zikloak osorik eskaintzen dituztenak / Bigarren Hezkuntzako Institutuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen dituztenak.

Edonola ere, eskola mapa berriaren arabera, desagertu egingo dira 12-16 urte bitarteko ikasleen ikastetxeak, hau da DHB Independenteko ikastetxeak; teoriarik, ikastetxe horiek Lehen Hezkuntzako ikastetxe batekin bat egin eta 2-16 urte bitarteko irakaskuntza tartea eskaini edo Bigarren Hezkuntza ikastetxe batekin bat egin eta 12-18 urte bitarteko irakaskuntza tartea eskaini beharko dute.

- Ikastetxeen konfigurazioaren arabera, ikastetxeek hezkuntza-maila bakoitzeko ikastalde bat edo gehiago izan dezakete edo bestela ikastalde batean maila desberdinetako ikasleak izan. Azken ikastetxe hauek, landa-inguruan kokatuta badaude eta gehienez guztira sei ikastalde badute, "Eskola Txikiak" deituko dira.

- Ikastetxeen egungo sarea antolatzea, planifikatzea eta dekretu honetan ezarrita dagoenari egokitzea progresiboki egingo da dekretu hau Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta ondorengo lau ikasturteetan zehar. Arrazoi horregatik, dekretuan ezarritako aldaketak eta egokitzapenak gertatzen ez diren bitartean, ikastetxeen sarearen gaur egungo taxuketak nola ikastetxe-motek indarrean egoten jarraituko dute erabat.

Horiek dira Dekretuaren alderdi adierazgarrienak. Hezkuntza Sailak irizpide horiei jarraituz egingo dituen proposamen zehatzei begira, martxoan Gipuzkoako irakaskuntza barruti guztietan bilerak egiteko asmoa du Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak.

Hori dela-eta, IGEetako ordezkariari eskatzen dizuegu bilera horietara joateko, eskola mapa berriari loturiko proposamen berrien gaineko informazioa jasotzeko eta gai honi buruz sortuko den eztabaidan parte hartzeko, funtsezko gaia baita eskola publikoaren etorkizunerako.

Federazioaren webgunean ([www.baikara.org](http://www.baikara.org)) eskura dezakezue dekretuaren eduki osoa.

### **3.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA. 2008-09 IKASTURTEA**

Otsailaren 19an argitaratu zuten Aldizkari Ofizialean Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena, 2008-09 ikasturtean oinarrizko gaitasunen diagnosi ebaluazioari buruz aurreikusita dauden probak egiteko jarraibideak biltzen dituena. Proba horiek diru laguntza publikoa jasotzen duten ikastetxe guztietan egin beharko dira, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak zehazten duen moduan.

Hona hemen curriculumak zer dioen: *“Diagnosi-ebaluazioaz aritzean, ulertu behar da prozesu bat dela, eta ikastetxeak eta, beraz Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzen laguntzen duela, datu zorrotzak eta fidagarriak emango dituelako, eta datu horiek baliazgarriak izango direlako irakasle-taldeak eta hezkuntza-komunitate osoak hausnarketa egiteko.”*

2008-2009 ikasturte honetan ebaluatuko diren oinarrizko gaitasunak hauek izango dira:

- Gaitasuna zientzia, teknologia eta osasun kulturalan.
- Matematika gaitasuna.
- Euskara eta gaztelania hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna.

Aldi berean, ikastetxeen lagin batean, gizarte eta hiritar gaitasunari dagozkion proben aplikazio pilotua egingo da, aplikazioan lortzen diren emaitzak baliazgarriak izango direlako ISEI-IVEI Erakundearentzat, hurrengo ikasturtean gaitasun horretan erabiliko den behin betiko proba osatzeko.

Probak aplikatzeko epea hau izango da:

- a) Lehen Hezkuntzako 4.mailako ikasleak: 2009ko martxoaren 9tik 27ra bitartean.
- b) DBHko 2. mailako ikasleak: 2009ko apirilaren 27tik maiatzaren 15era bitartean.

Proba horiek egiteko ardura kanpoko enpresa bati esleituko zaio, lehiaketa publiko baten bidez. Probak zuzendu ondoren, ISEI-IVEIk emaitzak ikastetxeei jakinaraziko dizkie hurrengo ikasturteko lehen hiruhilekoan, ikastetxe bakoitzari buruzko txostenen bidez. Jasotako emaitzetan oinarrituta, ikastetxe bakoitzak hobekuntza-prozesua egin beharko du.

Ebaluazio diagnostikoaren emaitza ezingo da inoiz ikastetxeen arteko sailkapenak egiteko nahiz hurrenkerak ezarri ikastetxeen arteko alderaketak egiteko erabili.

#### **4.- JANGELA BATZORDEA**

Otsailaren 10ean eskola jangelei buruzko eztabaida egiteko batzordeari buruzko bilera egin zen Durangon, EHIGE Konfederazioak antolatuta. Gaia osotasunean lantzeko, hainbat batzorde eratzea erabaki zen bilera hartan, eskola jangelekin lotura duten hainbat gai azter ditzaten. Honako batzorde hauek proposatu ziren, hain zuzen:

- Jangelen gaineko Agindua aztertzeke batzordea: gaur egungo araudia aztertzea, aldaketarako proposamenen eztabaida egitea eta, azkenik, proposamen alternatibo bat aurkeztea du helburu.
- Jangelen funtzionamendua aztertzeke batzordea: eskola jangelek nolakoak izan behar duten eztabaidatzea eta jardunbide egokien gidaliburua osatzea da batzorde honen helburua.
- Eskola jangeletako janariaren kalitatea aztertzeke batzordea: kantitatea-kalitatea, adinen araberako menuak, nutrizioa, jaki bereziak, erosketak...
- Eskola jangelaren antolaketari buruzko eztabaida egiteko batzordea: ordu-tegiak, zuzendaritza, ardurak, harremanak.
- Jangelak heziketarako gune gisa bete beharreko eginkizunari buruzko eztabaida egiteko, eginkizun hori zehazteko eta horren gaineko proposamenak planteatzeko batzordea.
- Jangelako langileen lan baldintzei buruzko eztabaida egiteko batzordea: ezaugarriak, lanaldia...
- Jangelako arduradunaren egitekoa zehazteko batzordea: betebeharra, erantzukizuna, formazioa...
- Eskola Txikien egoera zehatzari buruzko eztabaida egiteko batzorde espezifiko.

Batzorde horietan gaiari buruzko interesa duen edonork parte har dezake, eta, beraz, batzorde horietakoren batean lankide izan nahi duten IGEei eskatzen dizuegu Federazioarekin harremanetan jar zaitezte, 943 32 72 08 telefonora deituta edo [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org) helbide elektronikora idatzita.

#### **4.- IGEENTZAKO MATERIALA**

Datozen egunotan, Federazioaren honako material hauek jasoko dituzue ikastetxeetan:

- Eskola Publikoaren Jaia iragartzeko kartelak. Ikastetxean edo egokien irizten diozuen tokian jartzeko.
- “Nola parte hartu Eskola Kontseiluetan” gidaren bigarren argitalpen eguneratuaren zenbait ale. Eskola Kontseiluko kide diren gurasoei banatzeko.

IGEren batek ale gehiago behar izanez gero, jar zaitezte Federazioarekin harremanetan.

#### **BAIKARA FEDERAZIOA**

Baso – Txiki, 36 – atzealde . 20015 Donostia

E-mail: [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org)

Tel: 943 327208 Fax: 943 274 977

Web orria: [www.baikara.org](http://www.baikara.org)